

AURKIBIDEA

1.- JARDUTEKO ARAU NAGUSIAK

2.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.- ISURIEN KUDEAKETA

3.1.- PORTUKO JABARI PUBLIKOKO URETARA EGINDAKO ISURIAK

3.2.- BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO UR KOLEKTORERA
EGINDAKO ISURIAK

4.- ATMOSFERARA EGINDAKO ISURIEN KUDEAKETA

5.- LURZORUKO KUTSADURAREN KUDEAKETA

5.1.- KUTSAGARRIAK IZAN DAITEZKEEN JARDUERAK

5.2.- LURZORUA EZ KUTSATZEKO NEURRIAK

6.- ZARATEN KUDEAKETA

7.- LARRIALDI-PLANAK

8.- ENERGIA-ERAGINKORTASUNA ETA JASANGARRITASUNA

NORK EGINA:

**Segurtasuneko
eta Ingurumeneko burua**

NORK ONARTUA:

**Osasuneko, Segurtasuneko
eta Ingurumeneko burua**

1.- JARDUTEKO ARAU NAGUSIAK

Bilboko Portuko zerbitzu-eremuan lan egiten duten enpresek indarrean dagoen ingurumen-araudia bete beharko dute eta, hala badagokio, bai eta aplikatu beharreko Portuko Agintaritza honen ingurumen-betekizunak ere. Halaber, legeak eskatzen dizkien ingurumen-lizentziak eta -baimenak eskuratu eta mantendu beharko dituzte, eta haien kopia bat bidali beharko diote Bilboko Portuko Agintaritzari.

Jarraibide hau Bilboko Portuko zerbitzu-eremuan Bilboko Portuko Agintaritzak emandako administrazio-emakida, baimen, kontratu, lizentzia eta abarren bidez zerbitzuak ematen dituzten enpresa guztiei aplika dakieke.

Enpresa kontratista nagusiek langile autonomoekiko edo haiek azpikontrataturako beste enpresa batzuekiko ezarritako betekizunak betetzeko erantzukizuna dute.

Bilboko Portuko Agintaritzak legezko araudia edo dokumentu honetan ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten lanak edo jarduerak geldiarazi ahal izango ditu, eta neurri gehigarri egokiak hartu.

Betekizun horiek betetzeak ez ditu enpresak salbuesten ingurune fisikoan eragin ditzaketen kalteengatiko erantzukizunetik edo ingurumenaren aurkako delituengatiko erantzukizun penaletik.

Enpresek erantzukizun zibileko polizetan sartu beharko dituzte beren jardueraren ondorioz sortzen diren ingurumena kutsatzeko arriskuak.

Emakidadunak, jarduera hasi eta gehienez ere hiru (3) urteko epean, UNE-EN-ISO 14001 arauan edo EMASen (ingurumenaren auditoria eta kudeaketarako sistema komunitarioa) oinarritutako ingurumen-kudeaketarako sistema bat ezarri beharko du, eta sistema horren irismenak bat etorri beharko du emakidan adierazitakoarekin.

2.- HONDAKINEN KUDEAKETA

Hondakinen ekoizlea arduratuko da hondakinak bildu, sailkatu, biltegiratu eta baimendutako kudeatzaileari entregatzeaz.

Hondakinen ekoizleak Portuko Agintaritzaren esku utzi behar du hondakinen kudeaketa egiaztatzen duen dokumentazioa.

Portuko zerbitzuen emakida eta baimenen titularrek Portuko Agintaritzari eman beharko diote, hala eskatzen zaienean, hondakinen kudeaketari buruzko memoria.

Debekatuta dago baimenik gabe hondakinak itsasora edo portuko saneamendu- eta euri-sareetara isurtzea edo Zerbitzu Eremuan uztea.

3.- ISURIEN KUDEAKETA

Erabat debekatuta dago edozein motatako produktu arriskutsuak (olioak, koipeak, disolbatzaileak, pinturak, etab.) saneamendu-sarera isurtzea (euri-uren sarea barne).

Portuko kainu-zulo eta hustubideetatik urrundu egingo da ustekabeko isuria, tanta-jarioa edo gainezkabidea izateko arriskua duen produktu arriskutsuen biltegi oro.

Jardueraren ondorioz produktu arriskutsuen ustekabeko jarioak gertatzen badira, enpresak baliabide xurgatzaileak izan beharko ditu haiek jasotzeko eta esparrutik ateratzeko.

Ezin badio bere baliabideekin eutsi isuriari, harremanetan jarri beharko du Bilboko Portuko Agintaritzaren honetako Larrialdiak Kontrolatzeko Zentroarekin. Nolanahi ere, isuri garrantzitsu oren berri eman beharko dio Larrialdiak Kontrolatzeko Zentroari.

Inoiz ez da kaia ur-mahukaz garbituko, drainatze-sistemaren edo kaiaren ertzaren beraren bidez hondakinak ur-geruzara isuri ez daitezzen.

Kaia garbitzeko ekortu egingo da beti, ekortzeko makinak erabiliz, eskuz ekortuz edo pala mekanikoen bidez arrastatuz.

Salbuespen gisa, portuko eragiketarako ezinbestekoa bada (adibidez, elikagaietarako ontziratu gabeko solidoak kaian utzi behar badira), ur-mahukaz garbitu ahal izango da, baldin eta emakidadunak Eragiketarako buruaren baimena badu. Salbuespenezko kasu horietan, ahalik eta ondoen ekortu beharko da alde zurretik.

3.1.- PORTUKO JABARI PUBLIKOKO URETARA EGINDAKO ISURIAK

Portuko itsasoko jabari publikoko uretan hondakin-urak (sanitarioak eta/edo industrialak) edo azaleko jariatzeak egiten dituzten emakiden titularrek Uraren Euskal Agentziari eskatu beharko diote lehorretik itsasora isuriak egiteko baimena, eta bertan eskatzen diren betekizunak bete beharko dituzte.

Isuriaren ekoizleak laginak hartu eta uren kalitatea aztertuko du baimenean ezarrita bezala, eta ezohiko emaitza oro jakinarazi eta justifikatuko dio Bilboko Portuko Agintaritzaren Osasun, Segurtasun eta Ingurumen Sailari. Hala eskatzen bazaio, haren esku jarriko ditu neurketa horien emaitzak.

Ur sanitario eta industrialen isuri guztiak saneamendu-sare horretara konektatu beharko dira teknikoki bideragarria denean, "Bilboko Portuko Saneamenduaren Proiektua, I. eta II. faseak" proiektuaren arabera, zeina Bilboko Portuko Agintaritzaren, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren eta Uraren Euskal Agentziaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren barruan garatu baita.

Bilboko Portuko Agintaritzaren ur-sarearen bidez egindako isuriak

Isuria Portuko Agintaritzaren ur-bilketako sarearen bidez egiten denean, aurreko betekizunak betetzeaz gain, konexio-baimena eskatu beharko zaio Bilboko Portuko Agintaritzaren Kontserbazioko buruari, eta honako datu hauek eman:

- Hargunearen eta kontrol-kutxetaren posizioa jasotzen duen saneamendu-planoa
- Isuri beharreko uren jatorria
- Arazketa-instalazioen proiektua
- Eguneko batez besteko emari zenbatetsia eta urteko isurketa-bolumena

Isurketen berezko kutsadura-parametroek ez dituzte gaindituko Uraren Euskal Agentziaren baimenean ezarritako gehieneko mugak. Baimen horren kopia bat bidaliko diote BPAko Osasun, Segurtasun eta Ingurumen Sailari.

3.2.- BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO KOLEKTORERA EGINDAKO ISURIAK

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kolektorera hondakin-urak (sanitarioak eta/edo industrialak) isuri nahi dituzten emakiden titularrek dagokion baimena eskatu beharko diote Partzuergo horri eta, hori egin ondoren, "Kolektorera konektatzeko adierazpena/baimena" eskatu eta gorde beharko dute.

4.- ATMOSFERARA EGINDAKO ISURIEN KUDEAKETA

Beren jarduera indarreko legerian ezarritako "atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoan" sartuta duten emakidadunek nahitaezko baimena eduki beharko dute edo, bestela, autonomia-erkidegoko organo eskudunari jakinarazpena bidalia izan, legedi horretan ezarritako epeetan. Aire zabaleko ontziratu gabeko solidoak manipulatzeko eta biltegiratzeko emakidek baimenaren/jakinarazpenaren prozesutik eratorritako neurri teknikoak hartu beharko dituzte, BPAREN neurketa-estazioetan erregistratutako material partikulatuaren mailak hobetzeko.

Ontziratutako gabeko solidoak manipulatzeko, Estatuko Portuen “*Guía de Buenas Prácticas en manipulación y almacenamiento de Graneles Sólidos en Instalaciones Portuarias*” dokumentuko gomendioak beteko dira, alderdi hauei bereziki erreparatuta:

- Koilarak behar bezala ixtea.
- Koilarak andeletik ahalik eta hurbilen irekitzea.
- Baldintza atmosferiko txarretan, palaz egindako manipulazioa mantsotzea eta salgaia ureztatuz bustitzea edo, ahal denean, plastikoz edo olanaz estaltzea.

Atmosferara isuriak eragin ditzakeen instalazio batean autokontrolak egin behar direnean, bai legeak bai Bilboko Portu Agintaritzak hala eskatzen duelako, autokontrol horiek Portu Agintaritza honen eskura egongo dira.

Gutziz debekatuta dago edozein motatako hondakinak edo materialak erretzea.

5.- LURZORUKO KUTSADURAREN KUDEAKETA

5.1.- KUTSAGARRIAK IZAN DAITEZKEEN JARDUERAK

Kutsagarria izan daitekeen jardueraren bat duten emakiden titularrek, indarrean dagoen legeriaren arabera, legeak ezarritakoa betetzeko autonomia-erkidegoko ingurumen-organuari bidaltzen dizkioten txosten eta komunikazio guztien kopia bat bidali beharko diote Bilboko Portuko Agintaritzaren Osasun, Segurtasun eta Ingurumen Sailari ere.

Era berean, emakida-epa amaitutakoan, autonomia-erkidegoko ingurumen-organoren lurzoruaren kalitatearen adierazpena eduki beharko dute, eta Portu Agintaritzari aurkeztu. Lurzorua kutsatutzat jotzen bada, emakidadunak leheneratzeko behar diren neurriak hartuko ditu, eta leheneratze hori egiaztatzeko, autonomia-erkidegoko ingurumen-organoren ebazpena aurkeztu beharko dio Portu Agintaritzari, lurzorua kutsatutzat jotzeari utzi diola adierazten duena.

5.2.- LURZORUA EZ KUTSATZEKO NEURRIAK

Lurzorua ez kutsatzeko, prebentzio-neurri hauek hartuko dira:

- Ibilgailu eta makinen garbiketak, olio-aldaketak, mantentze-lanak eta edozein motatako konponketak horretarako gaituta eta baimenduta dauden instalazio edo tailerretan soilik egingo dira.
- Substantzia likido arriskutsuak biltegitratzeko eremuak iragazgaiztu egingo dira.
- Ustekabeko isuriak, gainezka egiteak edo tanta-jarioak atxikitzeke gai diren kubetak edukiko dira.
- Biltegitratutako substantzia arriskutsu guztien segurtasun-fitxa eduki beharko da.
- Debehatuta daude lurzorua kutsa dezaketen eta balizko isuriak atxikitzeke sistemarik ez duten jarduerak.

6.- ZARATEN KUDEAKETA

Estatuaren eskumeneko azpiegituretarako zonako plan espezifikotan Estatuko Administrazio Orokorrek ezarritako kalitate akustikoko helburuak lortu beharko dira, baldin eta Administrazio horrek zortasun akustikoko eremuen mugaketa ezarrita ez badu lehendik dauden eremu urbanizatueterako.

Horrez gain, zaratak minimizatzeko, honako arau orokor hauek hartuko dira kontuan:

- Zarata atmosferara igortzeari dagokionez indarrean dagoen araudia betetzen duten ibilgailuak, itsasontziak eta makinak erabiltzea.
- Txatarra edo antzeko produktuak gaueko ordutegian deskargatzeko, koilara andelaren pareraino jaitsi behar da.

7.- LARRIALDI-PLANAK

Emakida guztiek izan behar dute Bilboko Portuko Autobabes Planera egokitutako

Autobabes Plan bat, eta plan horren edukiak aplikatu beharreko legeria bete behar du. Plan hori BParen Osasun, Segurtasun eta Ingurumen Sailera bidaliko da, bai eta funtsezko edozein eguneratze edo aldaketa ere.

Istripu larriei atxikitako arriskuak kontrolatzeari buruzko legeriaren eraginpeko emakidadunek, bestalde, Arriskuen Analisia eta dagozkion eguneratzeak bidaliko dituzte.

Ustekabeko itsas kutsadurari buruzko legeriaren eraginpeko emakidadunek Itsas Kapitaintzak emandako Itsasoko Barne Planaren onarpen-ziurtagiria izan beharko dute BPAk txosten loteslea egin ondoren.

8.- ENERGIA-ERAGINKORTASUNA ETA JASANGARRITASUNA

Emakidadunaren eraikuntza-proiektuan eraikinak egitea aurreikusten bada, indarrean dagoen legerian eraikinen energia-ziurtapenari buruz ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte.

Emakida hasten denetik edo, obrak egiten badira, jarduera hasten denetik bi (2) urteko epean, hornidura elektrikorako kontratatutako energia guztiak jatorri berriztagarria izan beharko du, eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (CNMC) emandako jatorri-bermearen ziurtagiria beharko du.

Emakidadunaren nabe, bulego eta instalazioen estalkiak ez badira erabiltzen haren autokontsumoko instalazio fotovoltaikoetarako, Bilboko Portuko Agintaritzak erabili ahal izango ditu, zuzeneko kontraprestazio ekonomikorik gabe, portu-esparruaren barruan kontsumo kolektiboko edo partekatuko eredu etarako instalazioak ezartzeko, Portuko Agintaritzak ezartzen dituen baldintzei jarraikiz, eta, betiere, teknikoki bideragarria bada.